

# **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

Negozioaren balio proposamena bezeroei helarazteko ondorengo banaketa eta komunikazio kanalak erabiliko dira:

## **1.Komunikazio kanalak:**

- Edozein gailurekin ikusi ahal izango den **web-orri** bat izango dugu. Wordpress-ekin sortuko dugu eta hura sortzea dohainik izango da. Han sartuko da gure enpresari buruzko informazio guztia.
- **Sare sozialak** erabiliko dira gure produktuaren irudia indartzeko, hala nola, **Facebook**-orria, edota **instagram**. Bertan saltzen dugun produktuaren inguruko informazioa, edota diabetesaren inguruko informazioa eta komentarioak sartuko dira, edota diabetesari aurre egiteko gomendioak. Modu horretan jende gehiagora heltzeko aukera egongo da. Diabetikoak diren jende ezagunaren gomendioak txertatzeko aukera izango dugu sare-sozialen bitartez, hala nola, Carlos Sobera.
- Salmenta tokia bereizgarria izan behar du; enpresaren logoa kaletik oso ondo ikusi behar da.
- Postontzietan produktuen katalogo bat banatuko da, produktuen prezioak eta prestakuntzak adieraziz.

## Publizitatea:

ZURE OSASUNA  
ZAINTEKO  
SMARTWATCH-AK

SAR EZAZU  
ETORKIZUNETIK  
DATORREN  
TEKNOLOGIAN

NON GAUDE?

Erandio, San Agustín Plaza, 2  
dumtechnology.com  
dumtechnology@contactus.com  
914532456

**DUM**

KONEKTA EZAZU ZURE  
BIZITZA ETORKIZUNERA

- Interneten publizitatea jartzea (beste web-orrietan edo YouTube-ko bideotan)
- DUM deituriko YouTubeko kanal bat irekiko da, produktuaren bideoak igoko direlarik.

## 2. Salmenta kanalak:

- Denda fisiko bat izango dugu; Erandion, San Agustín-eko esparantzán 2. zenbakian, jendea joan ahal den gure produktuak erosteko fisikoki. Ordainketak egiteko erraztasunak emango dira, txartelarekin ordaintzeko aukerak emanez, edota produktua finantziazteko aukerak emanez.
- Enpresaren web-orritik erosteko aukera ere emango da. Han ere eskaintzen ditugu gure produktuak.
- Sport dendetan salduko da gure produktua, adibidez: Decathlon-en, Forum Sport-en, Footlocker-en, Intersport-en...

### **3. Banaketa kanalak:**

Produktuaren banaketa eta bezeroari helerazteko modua “Correos Expres” edota MRW garraio enpresen bitartez egingo da. Bidaltze kostuak bezeroak ordaindu beharko ditu Euskalerritik kanpo baldin bada.

